

# “AMURRION EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU!”

## AGERRALDIAREN IRAKURKETA

Ezer baino lehen, eskerrik asko gaur hona bertaratu zareten herritar, elkarte eta eragile guztiei. Eta mila esker ere, bidean jarri dizkiguten oztopo guztien gaintik, azken asteetan euskarazko komunikabideen aldeko manifestuari atxikimendua eman diozuen 1.700 norbanako, elkarte eta eragileei, oso eskertuak gaude.

Azken hamarkadetan urrats esanguratsu asko eman dira euskararen biziberritze prozesuan. Euskaltegiak, ikastetxeak, komunikabideak, erakunde publikoak, euskara taldeak, kultur zein kirol elkarteak, eragile sozialak, norbanakoak... **Guztien ekarpena berebizikoa izan da** hizkuntzaren normalizazioan aurrera egiteko.

Bide horretan, ezinbestekoa izan da beti **elkarlanerako espazioak** sortzen saiatzea. Erakunde mota ezberdinen arteko elkarlana, herritarren artekoa, ezberdinen artekoa. Inurri lan handiari esker, **kontsentsu zabalak** lortu dira euskararen biziberritzera bidean, eta hemendik aurrera ere horretan jarraitu behar dugu.

Baina, lorpenak lorpen, ezin gara geldirik egon. **Euskararen kale erabilerak ez du gora egin** eskualdean azken sei urteetan, eta beste hainbat esparrutan eginiko ikerketek ere kezkatzeko moduko datuak plazaratu dituzte. **Euskara bidegurutze batean dago**, eta bada unea bultzada berria emateko.

Bide horretan, **funtsezko zeregina betetzen dute Aiaraldea bezalako euskara hutsezko komunikabideek**. Eta, horregatik, **beharrezkoa da instituzio publikoetatik euren jarduna ekonomikoki eta sozialki babestea**, berebizikoa baita hizkuntzaren biziberritzerako.

Horregatik guztiagatik, honakoa **eskatzen dugu**:

1. Amurrioko Udalak udalerriko zein eskualdeko **euskalgintzaren eragileekin elkarlana estutzea**, euren aldarri eta proposamenak babestea eta horietan aktiboki parte hartzea, modu horretan, euskararen biziberritzean eragile aktibo bilakatzeko.

2. **Amurrioko Udala Aiaraldea Komunikabidearekin biltzea**, bi entitateen arteko elkarlana berriz martxan jarri eta normalizatzeko.
3. **Amurrioko Udalak Aiaraldea Komunikabideari azken hamabi urteetan eman dion diru-laguntza berrezartzea** eta babes ekonomiko horren zenbatekoa eguneratzea, eskualdeko gainontzeko udalek egiten duten ekarpenarekin parekatuz.

Amurrioko Udalaren euskararekiko politika elkarlan terminoetara ekartzeko erronka dugu esku artean. Amurrioko eta eskualdeko 1.700 norbanako, elkarte eta eragile baino gehiagok bat egin dute aldarrikapen hauekin.

Tenemos la obligación de reconducir a terminos de colaboración público-comunitaria y apoyo mutuo la política lingüística del Ayuntamiento de Amurrio. Mas de 1.700 personas, entidades y asociaciones de Amurrio y Aiaraldea han hecho suya esta reivindicación.

Amurrioko herritarrek ere, kolore eta pentsamendu anitzetako norbanakoek babesa eman diote aldarrikapen hauei, bai eta Aiaraldea Komunikabideari ere.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu atxikimendua eman diguten Amurrioko eragile hauei:

- AMAURRE IKASTETXEA
  - Mendiko Eskolako irakasle-klaustroa
  - Zabaleko eskolako irakasle-klaustroa
  - ARESKETA IKASTOLA Kooperatiba Elkarte.
  - ZARAOBE IKASTETXEko zuzendaritza taldea
  - Zabaleko Ikastetxeko Ikasleen Guraso Elkarte
  - MENDIKO ESKOLAKO Ikasleen Guraso Elkarte
- 
- Euskotarrak koadrila
  - Dantza Lagunak jai koadrila
  - Txabolakoak Jai Koadrila

- El Boli Kuadrila
- Herriarenak Jai Kuadrilla
- Trot-art jai Koadrila

- Coordinadora de Podemos
- EH Bildu Amurrio

- LAB sindikatua
- ELA sindikatua
- ESK sindikatua

- Tubos Reunidoseko Enpresa Batzordea
- Aresketa Ikastolako enpresa-batzordea
- Amurrio Ferrocarrileko enpresa batzordea
- Inauxako Enpresa Batzordea
- Tubacexeko Enpresa Batzordea
- TUBOS REUNIDOS GROUPEKO ESK sindikatuko ATAL SINDIKALA
- BM Aiara Komitea (Amurrio-Laudio)
- **AMURRIO UDALEKO LANGILEEN KOMITEA**
- TUBOS REUNIDOS Amurrioko LABeko Sail sindikala

- **Aiara dantza Taldea**
- Aimara Antzerki Taldea
- **Burubio Kultur Elkarte**
- Cuatro Bancos taldea
- **AIARALDEKO SOINU SISTEMA**
- Belgorri taldea
- **Txokogorri kultur eta aisialdi elkarte**
- Zinema Uneak elkarte
- **ABSKE AIARALDEKO BMX, SKATE ETA KULTURA ELKARTEA**

- Ohiturak elkarteak
  
- MENDIKO LAGUNAK MENDI TALDEA
- **Giltzarrapo Futbol taldea**
- IKASLEHI AMURAIAL TXIRRINDULARI KIROL KLUBA
  
- **ELEKTROHOB ARABA**
- Adigrafik
- **ELKARLAN AHOLKULARITZA**
- Gestoria Arrate
  
- **Asociación vecinal Bañueta Auzoa**
- Baranbioko Jai Batzordea
- **Junta Administrativa de Baranbio Junta Baranbio**
- Lezamako Jai Batzordea
  
- **AMURRIO HARRO elkarteak**
- Muskerrak Ingurumen Elkarteak
- **Gaurgeroa Aiaraldea Pentsiodunen elkarteak**
- Gure Esku Dago Amurrio
- **Maisu mikel hezkuntza**
- Amurrioko Gazte Asanblada
- **Uhandre Amurrioko baso biziak elkarteak**
- Amurrioko AEK
- **Belaiki elkarteak**
- Movimiento pensionistas Amurrio
- **Amig@s de la Republica Araba Saharai Demokratika**
- Ernai Amurrio
- **Amurrioko Emakumeon\* Sarea**
- Amurrioko Hezkuntza publikoaren sarea
- **Amurrioko jai herrikoien aldeko batzordeak**
- ASOC GRUPO DE AYUDA Y ACOGIDA LAGUNTZA

- **NAGUSILAN voluntariado social de mayores**

...eta oraindik ere atxikimendua ematen ari diren beste hamaika entitate ere.

### **Eskerrik asko bihotz-bihotzez.**

Eta eskerrik asko ere, elkartasuna eta babesa adierazi bai, baina edozein arrazoi medio, atxikimendua ematera ausartu ez diren horiei guztiei ere. Amurrio eta Aiaraldea euskalduntzeko lanean jarraituko dugu, ez izan zalantzarik.

Euskara egiazki biziberritzeko, Amurrioko Udalak elkarlana sustatu behar du gizarte zibilarekin; bertako elkarte eta entitateekin, eta eskutik helduta aurre egin behar diogu gure hizkuntzak bizirik jarraitzeko aurrean duen erronka erraldoiari. Garaiz eta prest gaude horretarako.

El Ayuntamiento de Amurrio debe promover la colaboración activa con la sociedad civil, con sus asociaciones y entidades, para poder afrontar de la mano el enorme reto que supone la revitalización de nuestra lengua. Estamos a tiempo de retomar esa colaboración, y estamos dispuestas a ello.

Norabide horretan, hemen ordezkatuak gauden pertsona eta erakundeek dei zintzo bat egin nahi diogu Amurrioko Udalari: manifestu honetan aipatu ditugun hiru aldarrikapenei bide eman diezaiola lehen bait lehen.

Udan sartu berri gara, eta udazkenara arte (irailaren 21era arte hain zuzen ere) itxarongo dugu erantzun positibo hori.

Hala ez bada, pausu berriak eman beharko ditugu norabide honetan.

**Euskarak denona izan beharko lukeelako, eman ditzagun denok horren aldeko urratsak.**

**Amurrion euskaraz bizi nahi dugu!**